

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

811/2017 Foru Erabakia, abenduaren 26ko Foru Gobernu Kontseiluarena, ebazten dituen bidaiarien herri arteko erabilera orokorreko errepide bidezko garraio erregularren zerbitzurako aurreproiektuari (C-01 Miranda de Ebro – Vitoria-Gasteiz – Durango) aurkeztutako alegazioak, eta behin betiko proiektua onartzen duena

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 18ko 70/2014 Erabaki bidez, onarpena ematen zitzaien bost aurreproiektuari, Arabako Foru Aldundiaren errepideetako bidaiarien erabilera orokorreko garraio publiko erregularren zerbitzu berriak ezartzeko.

Onartutako aurreproiektuetako bat izan zen C-01 Miranda de Ebro – Vitoria/Gasteiz – Durango izeneko zerbitzu unitateari buruzkoa.

70/2014 Erabakiak ezarritakoa betez, eta zerbitzu unitate horrek autonomia arteko izaera duela kontuan hartuta, iragarkia argitaratu zen 2014ko otsailaren 26an ALHAOn eta 2014ko martxoaren 6an Estatuaren Aldizkari Ofizialean, aurreproiektua jendaurrean jartzeko hogeita hamar egun baliodunetz, iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera zenbatzen hasita, interesdunek aurreproiektuaren edukia aztertu eta egoki jotzen zituzten alegazioak aurkezteko. Halaber, aurreproiektu horren ale bana bidali zitzaizen Bizkaiko Foru Aldundiari, Gaztela eta Leongo Juntari eta Sustapen Ministerioari, txostenak egin eta aldundi honetara bidal zitzaizen haiei aurkeztutako oharrekin batera, jendaurreko epea amaitu eta hurrengo hamabost egunetan.

Jendaurreko epea amaituta, C-01 aurreproiektuaren 408 alegazio espezifiko jaso ziren, hainbat aurreproiektuari eragiten dieten bost alegazio orokor eta lau txosten. Horiek guztiak baloratu eta aztertu ditugu.

2017ko urriaren 24an Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuak txostena egin zuen bai jasotako alegazio eta txosten guztiak baloratzeko bai eta hasiera batean onartutako aurreproiektuan aldaketak egitea komeni den baloratzeko ere, kontzesio berriaren behin betiko proiektua onartu aurretik. Txostenaren edukia ebazpen honi erantsi zaio, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenaren, 88.6 artikuluan jasotakoari jarraituz.

Irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuak, lurreko garraioen antolamenduari buruzko Legearen erregelamendua onartzen duenak, 63.5 artikuluan xedatutakoa ikusita, eta aurkeztutako alegazioen eta egindako txostenen balorazio tekniko, ekonomiko eta juridikoa egin ondoren, Arabako Foru Aldundiak ebatzi beharra dauka ea zerbitzua berrezartzea egokia den eta ea hasiera batean onartutako aurreproiektuan aldaketak egitea komeni den eta, hala badagokio, baldintza orrien oinarri izango den proiektua onartu beharko du, zerbitzuaren ustiapena horren arabera esleitzeko. Eta horregatik guztiagatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Ebaztea bidaiarien herri arteko erabilera orokorreko errepide bidezko garraio erregularren zerbitzurako aurreproiektuari (C-01 Miranda de Ebro – Vitoria-Gasteiz – Durango) aurkeztutako alegazioak, 2017ko urriaren 24ko Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuaren Txostenaren 2. atalean adierazitako baldintzetan. Txostena Erabaki honi erantsita dago.

Bigarrena. C-01 Miranda de Ebro – Vitoria-Gasteiz – Durango zerbitzurako aurreproiektuan 2017ko urriaren 24ko txostenaren 3. atalean proposatutako aldaketak jasotzea.

Hirugarrena. Onartzea bidaiarien herri arteko erabilera orokorreko errepide bidezko garraio erregularren zerbitzurako proiektua (C-01 Miranda de Ebro – Vitoria-Gasteiz – Durango), Erabaki honi erantsita dagoena.

Laugarrena. Jakinaraztea jendaurreko izapidean parte hartu duten pertsona eta erakundeei aurkeztutako alegazio eta txostenen balorazioa.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn eta Estatuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Gasteiz, 2017ko abenduaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua

JESUS MARIA LOPEZ UBIERNA

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko zuzendaria

MARIA ANGELES GUTIERREZ ONDARZA

Erabakiari erantsitako agiriak eskuragarri daude esteka honetan:

http://www.araba.eus/cs/Satellite?c=Page&cid=1224008296857&language=eu_ES&pagina-me=DiputacionAlava%2FPage%2FDPA_contenidoFinal